

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Azaleratu dugun proiektu honek aurrera jarrai dezan gure indar eta gogo guztiak batu behar ditugu lautaldekiek. Proiektua bertan behera geratu ez dadin eta era egokian funtziona dezan, hasieran diru kopuru jakin bat inbertitzea beharrezkoa ikusten dugu. Diru kopuru hori 500€-koa izango da, horrela, makinak, musukoak, eta beharko dugun material guztia ordaintzeko ahalmena izango dugu.



Hasteko, bakoitzaren gaitasun edo jakintzari dagokionez, Gorkak izugarritzko trebetasuna du sare sozialen munduan, iada 3 urte daramatzalako bideoak grabatzen eta horiek editatzen, gero beretzako gorde eta jendaurrean erakutsi nahi ez arren. Honekin esan nahi duguna da, ordenagailuak erabiltzerako garaian, beste enprekin kontaktuan jartzeko, edota sisteman sarea ereriko balitz, Gorka bikain trebatuko litzateke egon daitezken arazoei aurre egiten eta bere betebeharrak egoki betetzen. Horrez gain, jendearekin tratuan aritzeko gaitasuna du, oso irekia baita eta konfiantza erakusten du berarekin mintzatzeko garaian. Enpresa aurrera ateratzeko beharrezkoak diren irizpideak betetzen dituelakoan gaude, izan ere, beraren laguntzarik gabe zaila egingo litzaziguke arrakasta izatea.

Bigarrenik, hurrengo taldekia Mikel da. Mikel, betidanik oso ondo moldatu izan da zenbakiekin. Gainera, kalkulagailu gabe, zenbaki altuen kalkulua egiteko gai da eta oso gogoko ditu matematikak, beraz, makina kopurua, soldatak, argindarra, lehengaiak... kalkulatzeko ez da erronka bat izango beretzat. Horrez gain, presiopean oso ondo lan egiten du eta oso antolatua da. Beraz, langileak zuzentzeko eta hauei agintzeko garaian, ez zaio arrotza egingo, momentu oro bera egongo delako beraien ondoan lagunduz, eta hauek behar dituzten beharrak asetzen. Trebetasun handia baitu besteak entzuteko, eta, Mikelen nahi handiena langileek lana ahalik eta modu produktiboenean egin dezaten baita.

Bestalde, Anderrek abilezia handia du bere argudio sendoekin besteak konbentzitzeko eta gainontzekoei iritziz aldatzeko. Gainera, oso ondo moldatzen da jendearen aurrean mintzatzeko, eta duen karismarengatik beste pertsonak erakartzeko abilitadea du. Horregatik, ez zaio batere zaila izango kanpoko enprekin aliantzak egiterako garaian, gure desioak helaraztea eta hauek betetzen direla ziurtatzea.



Amaiera emateko, Jon diruarekin ondo moldaten denez, kargu hori bere gain utziko dugu. Beti ibili da ekonomia munduan interesatuta, eta horrek dakarren guztiarekin. Txiki txikitatik etorkizun batean ekonomia ikasketak ikasi nahi zituela argi zuen, eta aurten selektibitatea egin ondoren eta nota iritsiz gero, bere ametsetako unibertsitatean ekonomia ikasteko asmoa du. Ekonomiaren inguruko zaletasun hori ez da norberarengandik soilik etorri, bere familiarik, bere aitarengandik, hain zuzen ere, jaso du. Aita ekonomialaria da eta bere alboan

denbora luzez egoten zen hartzaroan, orain berriz, bere ordua da eta zalantzaren bat izanez gero, aitari galdetzeko aukera izango du.